

2011ko abenduaren 9a  
10. urtea - 440 zk.

durangaldeko astekaria

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)

## Herririk Herri | 2

Presoen aldeko baraualdia egingo dute  
Durangoko Bilduk eta Aralarrek



## Berbaz | 8

Euskararen Eguna Berbaro, Plateruena  
eta Anbotoren gogoetaren abiapuntu

## Amalurra | 19

Tokiko Agenda 21-aren ebaluazioan  
Durangok 8,1eko puntuazioa jaso du



KULTURA | 11

## Aldaketen Azoka, estrategia eta zuzendari berriekin

Aiert Goenagak hartuko du Jon Irazabal  
orain arteko zuzendariaren testigua

Ahotseneak eta Haur Literatur Aretoak legez,  
hiru gune berrieik "harrera bikaina" izan dute

## DURANGO | 3

Baliteke Europar  
Batasunak  
Erralderi baimena  
luzatzea

Hiltegiko arduradunek diote-  
nez, Erralde urte amaieran ez  
ixteko zirrikitura zabaldu du  
Europar Batasunak.

## Durango | 2

25. urtemuga ospatuko du Udal  
Euskaltegiak abenduaren 15ean

## Abadiño | 6

Jose Luis Lizundia euskaltzainak  
674 liburu eman ditu dohaintzan

## Berriz | 4

2012ko aurrekontuan auzo taxia  
martxan jartzea aurreikusi dute

## Mallabia | 4

Laboaren omenezko kontzertua  
egingo dute abenduaren 16an

Bodegas Launa  
Arabar Errioxa

www.bodegalauna.com info@bodegalauna.com Tel.: 94 682 41 08

Launa plus Ondua

RIOJA Crianza 2007

EN DE ORIGEN CRIANZA

# HERRIRIK HERRI >

## DURANGO

### 25. urtemuga jaia ospatuko du eguenean Udal Euskaltegiak

Durangoko Udal Euskaltegiak 25 urte bete dituela-eta, urteurren jaia antolatu dute abenduaren 15erako, 19:30ean, San Agustin kulturgunean.

Urte hauetan euskaltegitik pasatu diren ikasleak, irakasleak, politikoak, euskara elkarreka, hasieran martxan jarri zutenak e.a. gonbidatu dituzte ekitaldira. Jon Kepa Garro Udal Euskaltegiako lehendakariak eta Joserra Agirreurreketa lehenengo zuzendariak jaialdian parte hartuko dutela

**Urte hauetan euskaltegitik pasatu diren hainbat lagun gonbidatu dituzte**

azaldu dute euskaltegitik. Aitziber Irigoras Durangoko alkatea ere bertaratuko da. Sarreren ondoren, euskaltegiaren 25 urteak islatzen dituen argazki emanaldia eskainiko dute. Bertaratzen direnen argazkia atera ondoren, lantxa eskainiko dute. "Jaiadla denok elkarteko aitzakia izango da", azaldu du Maite Euba euskaltegiako zuzendariak. ■ J.G.

### Trenbidearen lurperatzea 2013an prest egongo da

Iñaki Arriola sailburuak eman du data berria

Etxebizitza, herri-lan eta garraio sailburu Iñaki Arriolari Durangon trenbidealurperatzekolanen inguruaren galdeku dio Aralarreko Dani Maeztu legebiltzarkideak osoko bilkuraren. Durango Operazioaren baitan trena 2013a baino lehenago lurazpitik igaro ahal izatea zerk

### Bilduk eta Aralarrek presoen alde mobilizatzen deitu dute

Zinegotziak abenduaren 16ko presoen aldeko baraualdian parte hartuko dute

**B**ilduko eta Aralarreko zinegotziak euskal presoen eskubideen inguruaren prentsurrekoeman dute asteon. Bilduko Urdaspal Bolinaga eta Aralarreko Dani Maeztu

**Euskal presoen eskubideen errespetua aldarrikatu dute  
Bilduk eta Aralarrek**

zinegotziak azaldu dutenez, "une historikoa bizi dugu Euskal Herrian, ETAk borroka armatua behin betiko uzteko hartutako konpromisoagaz". Azaldu dutenez, normalizazio politikora



Eguaztenean udaletxe aurrean egin zuten agerraldia Bolinagak eta Maeztuk.

### Bidezko merkataritza San Antonio Santa Ritan

Ikastetxeak bidezko merkataritza bultzatzeko denda jarriko du martitzenetik barikura

Urtero Gabonak orduko bidezko merkataritzan ekoiztutako produktuekin denda atontzen dute San Antonio Santa Rita ikastetxeen. Datorren asterako ezarri dituzte, dagoeneko, dendaren kokalekuak. Goiztan martitzenean barikura Komentu kalean atonduko dute denda. Arratsaldeetan, berriz, 16:30etik 17:30era jarriko

ditzte produktuak salgai; martitzenean San Frantziskon, eguzteten eta barikuaren Komentu kalean eta eguenean Intxaurrondon.

**Kidenda elkartea antolatu  
dute denda solidaria  
San Antonio Santa Ritan**

du Maeztuk. "Urte horretan bertain trena lurrazpitik joango litzake", dioenez.

Hala ere, Aralarreko legebilztarkideak gogorarazi du 2010eko abenduan lanotarako amaiera data 2012an zehaztu zutela. "Orain besete urtebetetzez atzeratu dute data hori, herritarrengan kezka sortuz", adierazi du. ■ A.B.

**Lanotarako amaiera data  
2012rako zehaztu zutela  
kritikatu du Aralarrek**

Mertxe Sagastizabal eta Ana Unzila dira ekimena antolatzen dihar dutenak. "Aurten DBHko 3. maiako ikasleak izan dira antolakuntzan ibili direnak, eta ondo erantzuten dabilta", azaldu digute. Kidenda elkartea agazelkarlanean prestatu dute denda.

Abenduaren 23an bidezko merkataritzaren irizpideekin ekoiztutako txokolateagaz txokolatada solidarioa prestatuko dute, batzen duten dirua Caritas elkartera bideratzeko. Azaroaren 3an umeek etxean zituzten jostailuak eramanda jostailuen merkatua antolatu zuten. Salmentagaz irabazitako dirua orduan ere Caritatis eman zioten, eta soberan zeuden jostailuak JAEDI. ■ J.G.

### Ordenantza fiskalak %3 igoko ditu udalak

2009tik ordenantza fiskalak igozen dituzten lehenengo aldia da Durangoko Udalean

Azken hiru urteetan ordenantza fiskalak bere horretan mantendu ondoren, aurten %3ko igoera orokorra izango dute. EAJ eta PSE-EEK alde bozkatu zuten; Aralar eta PPk kontra egin zuten eta Bildu abstentu egin zen. KPlaren arabero %3ko igoera izango dute 2012ko ordenantza fiskalek. Urtero "egoera ekonomiko gogorraren eta zerbitzuak mantentzearen arteko oreka bilatzen" saiatzen direla adierazi zuen Aitziber Irigoras alkateak osoko bilkuran.

Aralarrek ordenantza fiskalagoa defendatuzuen: "Ordenantza igoera ez eta zerbitzu publikoak mantendu gura badira, aurrekontuetan horretara bideratu beharko da dirua eta beste proiektu batuetan inbertitzeko

**EAJk eta PSE-EEk alde bozkatu  
dute, Aralarrek eta PPk kontra,  
eta Bildu abstentu egin da**

bidean eman beharreko urratsetan, besteak beste, "euskal preso politikoak eskubideen errespetua berermatubehar da". Aldehorretatik, bi alderdiek hainbat konpromiso hartu dituztel jakitera eman dute. Preso politikoak eskubideen errespetua aldarrikatu dute: "Dispersioaren amaiera, preso guztia Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea eta zigorra beteta dutenak askatzea".

#### Mobilizazioak

Bestalde, hartutako konpromisoen artean datorren urtarrilaren 7an Bilboko manifestazioagaz bat egin dute eta mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete Durangoko eragile guztiei.

*Egin dezagun bidea ekimenaren harira, abenduaren 16an udaleko hautetsiek baraualdia egin eta eguerdiko 12:00etan konzentrazioa egingo dute.*

Mobilizazio gehiagoren berri eman dute. Abenduaren 3an, arratsaldeko 20:00etan presoen aldeko manifestazioa irtengo da Andra Mariatik.

Herritarrei deialdi zabal eta anitzazuzatu diete bi alderdiek "ezberdintasun politiko guztien gainetik, giza eskubideen alde urrtasa eman eta herri honek inoiz ezagutu duen mobilizazio-rik handiena denon artean osatua dezagun". ■ J.D. / J.G.

diru gutxiago egongo da", Dani Maezturen berbetan.

Alderdi Popularreko Juan Jose Gastanazatorren ustez, arau fiskala izozteak zerbitzu publikoaren kalitateari "ez dio zertan eragin", eta aurrekontuetan "azaleko gastuak kentzearen" aldeko formula defendatu zuen.

Bilduk ordenantza fiskalak eta aurrekontuak batera landu behar direla azaldu zuen, nahiz eta gero banan bozkatu: "Proiectuen araberako sarrerak izan behar lituzke udalak". Bilduren ustez, "herritarrei galdu eta herritarren parte-hartearen ondoren zehaztu behar lirateke.

PSE-EEk aurkezta eta onartutako zuzenketa bategaz, enplegu barik daudenek hilean euro bat ordainduko dute zabor eta estolderia tasetan. Herentzia zuzeneko transmisioetan eta titulartasuna aldatzeko lizenzietaan bonifikazioa ere proposatu zuten. Bilduk erretiratutako zuzenketa bat dela azaldu dute. ■ J.D./J.G.

**E**rralde hiltegiaren etorkizuna denbora gutxian hamai-ka hari-mutur elkarregaz lotzearen baitan dago. Fronto asko dituzte zabalik. Denetan behineña Europakoa da. Azpiegituren europar araudira moldatu ezin eta Europar Batasunak hiltegia ixteko asmoa erakutsi duenez, martitzenean Bruselara joan ziren EHNEko eta Erraldeko ordezkariek. Jaurlitzako ordezkariek ezin izan zuten batzarrera joan "agenda arazoengatik, baina euren jarrera beti izan da Erralderen aldekoa".

Europar Batasunak esan die luzamendu bat lortzea "posible" dela: "Ezin dute ezersegurtatu, baina posible da", dio Mikel Ansotegi Erraldeko lehendakariak. Araudia betetzearen eskudunza Jaurlitzaren da, eta "esan digute eurei dagokiela proiektua defendatzeko txosten konbintzentea aurkeztea". Txostenak Erraldeko araudira egokitzeko hartu beharreko neurri zehatzak jasoko lituzke, eta baita hiltegi horren berezitasunak ere: Bizkaien bakarra dela, hiltegi berriko proiektua eginda dagoela... "Gu prest gaude Jaurlitzagaz txostena elkarlanean osatzeko, eta ondoren zehaztutako neurri eraginkorrik betetzeko".

#### Bizkaiko Aldundia

Berrizko hiltegi berriko lanen %40 finantzatzeko prest dago Jaurlitzarena, baina ez da nahikoa. Joan zen astean Aldundiko ordezkariekin batu ziren: "Batzar adeitsua izan zen. Erralderen garrantzia ulertu zutela uste dugu. Laster beste batzar bat lotzen saiatuko gara".

Finantziaziorako hirugarren bidea udalena da. Abenduaren

# Erralde baikor, Europar Batasunak baimena luzatu dakiokeelakoan

Bitartean, domekan 12:00etan, manifestazioa egingo dute Durangon



Joan zen astean Erraldeko egoeraren berri eman zuten hiltegian bertan.

14ko eguztenean, 12:00etan, Bizkaiko udal denak Erralde hiltegiaren bidatutu dituzte. Han azalduko diente egoera eta proiektua zer-tan den. Era berean, Erralderen batzko interesa erakutsi duten udalen berri emango dute.

Bitartean, domekan 12:00etan, manifestazioa abiatuko dute Durangoko hiltegitik: "Ahalik zabalena izan dadin nahi dugu, parte hartzeko gonbita luzatzen dugu". Nahi duenak itxieraren kontrako atxikimendua eman dezake [erralde.org](http://erralde.org)-en ere. ■ J.Derteano

## Auzotarren batzordearen ustez, "Erralderena da erru osoa"

Auzotarren batzordearen ustez, Erraldeko zuzendaritza da prozesuhonen guztien "erantzule bakarra", eta erantzukizuna instituzioengana "ez desbideratzeko" esku dute. EHNEren jarreragaz ere haserre agertu dira: "Hiltegia itxiko zutela jakitean hedabideetara zuzenean jo

zuten moratoria eskatuz, gurekin aurretik ezertz berba egin barik". Bildu koalizioa ere kritikatu dute: "Udaleko hiriginta batzordean ordezkarri bi dituzte, eta Erralderen gaineko iritzia plazaratzeko batzarrera ez ziren azaldu. Oraindik ez dakigu zergatik". ■ J.D.

#### OTXANDIO

## Hilaren 18rako azoka prestatu dute baserriko produktuekin

Hilaren 18ko domekan baserriko produktuekin osatutako azoka egingo dute. Krisi garaian salmenta zuzena bultzatzea da ekinmeneko helburuetako bat, eta bide horretan baserriko produktuak (ortuariak, gazta, ogia...) baserritarrei zuzenean erosko aukera eskainiko du azokak; bai saltzailearen eta eroslearen arteko harta-emana sustatzeko aukera ere.

#### Baserritarren eta erosleen arteko salmenta zuzena bultzatzea du helburu

Azoka goizean zehar egingo dute plazan, eta ohi duten moduan bestelako hainbat ekinmen ere egongo da; esaterako, Otxandioko 3. Buzkantz Lehaketa. Herri kirolari dagokionez, aizkolari, harri-jasotzaile, trontzalari... gazteen erakustaldia ikusteko aukera egongo da. Horri guztiari musika gehitu behar zaio, egun osoan zehar trikitilarriak herrian zehar ibiliko direla-koi jai giroa zabaltzen.

#### Buzkantz lehiaketa eta herri kirol erakustaldiak ere egongo dira egunean zehar

#### ATXONDO

## Agenda 21eko foroa deitu dute proposamenak batzeko

Abenduaren 13an, martitzena, egingo dute Tokiko Agenda 21eko hurrengo batzarra, herritarrek datorren urterako proposamenak eta iradokizunak egin ditzaten. 19:00etan hasiko da batzarra.

Urrian egin zuten Agenda 21eko azkeneko batzarra. Orduan ez zen astirik egon herritarrek euren iritziaz eta proposamenak emateko, eta horregatik deitu dute batzarra datorren asterako. Gogoratu dutenez, foro hauen metodologia harritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. ■ A.U.

## Jende ugari gerturatu zen joan den domekako Nekazal Azokara



Artisauetan beretan, taloa jaten eta pastel, ogi zein gazta usainak erakarrita, hainbat lagun batzen joan den domekan Atxondo XV. Nekazal Azokan. Frontoia pilotak partidentzako gordezteko aukera errespetatu egin zuen eguraldiak, eta plaza ingurueta giro ederra sortu zen.

#### GARAI

## Egindako lanak eta egin beharrekoak langai foroan

Webgunea, Wi-Fi sistema eta frontoiko aldagelen irisgarritasuna zehaztu dituzte

ditzuten beharren gainean egin zuten hausnarketa.

Argiztapenak, kultur etxearen irekiera eta Garairako bide zein espaloia izan zituzten berbagai, besteak beste. Aurrera begira, webgunea, Wi-Fi sistema eta frontoiko aldagelen irisgarritasuna zehaztu zituzten. Azken honeitarako diru-laguntza eskatu dute la azaldu du Sarrigoitiak. ■ M.O.

# 50 BEKA

1 Herraldea aukeratu

**Hel mugak**

PRAKTIKAK EUROPAN.  
EPEZ PROIEKTUKO VI DEIALDIA

Norentzat:  
UPV/EHUko titulatu berriak direnentzat.  
Beharrezko da 30 urte baino gazteagoa izatea eta Bizkaian erroldatua egotea.

Beka-kopurua: 50  
Herrialdeak: Alemania, Austria, Erresuma Batua, Txekiar Errep., Italia eta Portugal

Eskera-orriak  
eskuratzeko lekuak:  
Bizkaiko Campuseko  
Enplegu gunean edo [www.ehu.es/enplegugunea](http://www.ehu.es/enplegugunea) web gunean

**2**

informazio gehiago  
**UPV/EHU**  
[emplegobizkaia@ehu.es](mailto:emplegobizkaia@ehu.es)  
Tel.: 94 601 36 79 / 94 601 36 81

Durangalde Beharginetza  
[orientazioa.mdurango@bizkaia.eus](mailto:orientazioa.mdurango@bizkaia.eus)  
Tel.: 94 623 25 22

Getxolan  
[www.getxo.net/getxolan](http://www.getxo.net/getxolan)  
Tel.: 94 466 01 40

Izena emateko epea:  
2011ko azaroaren 29tik  
abenduaren 21a arte, biak barne

**GIZARTE EKINTZA**

**Lanbide**

**Getxolan**

**EUSKAMPUS**

**Universidad del País Vasco**

**Euskal Herriko Unibertsitatea**

## MAÑARIA

## Zalloventa harrobiak administrazioari eskatutako ordainaz

Administrazioak Zalloventa harrobiari ordaindu beharreko kalte-ordinaz galdu du Aralarrek

**E**usko Legebiltzarrean joan zenbarikan egin zuen kontrolerako osoko bilkuran burutu zuen Zalloventa harrobiari buruzko interpelazioa Aralarrek. Dani Maeztu legebiltzarkideak kritikatu zuenez, "gobernuak ez du Zalloventa harrobiak eskatutako kalte-ordinaren zenbatekoa bera ere zalantzan ipini".

"Ustiapenaren mugak zehazten dituen planean 2006an egin dako aldaketagaz enpresaren eskubide eta interes patrimoniala kaltetu zutela" argudiatuz, kalte-ordinaria esku zuen Zalloventa harrobiak administrazioari.


Aralarreko bozeramaileak azpimarratu zuenez, "auzitegiak hainbat bider adierazi dute ez dagoela interes legitimorik: hainbat bider utzi dituzte enpresak eskatutako lizenziak bertan behera". Procedura honetan, 9 milioi

euro ordaindu beharra ekiditeko, Eusko Jaurlaritzak halako argudioak zergatik ez dituen jorratugaldetu zuen Maeztuk.

"Denok dakigu natura-parkearen barruan ustiatzen jarraitzeko hainbat errekurso ipini dituela urteetan Zalloventak, eta irabazi ekonomikoak eduki dituztela", adierazi zuen interpelazioan Aralarreko legebiltzarkideak. Eusko Jaurlaritzak "guztioa diruagaz 9 milioi euro ordaindu behar izatea ikaragarria" deritzo Aralarrek.

### Unzaluren erantzuna

"Noski gauzak txarto egin direla", esan zuen interpelazioari erantzunez Pilar Unzalu Ingrumen sailburuak: "Auzitegi Nagusiaren sententzia bategaz, gobernuhonek herritar guztien dirutik 9,2 milioi ordaindu behar badizkio enpresari, gauzak txarto egin direla ondo-



Erauzketa jarduera bertan behera uztea agindu zuten 2010ean.

**D. Maeztu: "Guztioa diruagaz Zalloventari 9 milioi ordaindu behar izatea ikaragarria da"**

rioztatzea ez da gaitza". Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak esan zuenez, "sententzia bete behar izan arren, gobernu honen eskubideak defendatzeko lanean jarraitzen dugu". ■ I.E.

## BERRIZ

## Auzo-taxi zerbitzua ipiniko du udalak, aurrekontuetan onartuta

5.417.433 euroko aurrekontua bost zinegotzi jeltzaleek eta sozialistak onartu dute; Bilduko lauk kontra bozkatu dute eta bat, Puri Perez, abstenitu egin da

Auzo-taxi zerbitzuan 20.000 euro bideratuko dituzte, lehenik lizenziakateratzeko prozesua eta gero zerbitzuaren kontratazioa kubrik. Iurreta eredua dute iparrorratz, eta taxi bi egokituko dituzte. 2012ko lehen hiruhilekoan martxan ipini gura dute zerbitzua.

Ondarea berreskuratzeko egitasmoetarako 10.000 euro aurrekusi dituzte, eta lan sustapenerako 13.000. Berriz SUSAREN bidez 21 etxebizitzakudeatuko ditu udalakalairu sozialean; 113.000 euro bideratuko dituzte horretara.

**113.000 euro bideratuko dituzte Berriz SUSAREN bidez alokairu sozialean kudeatuko dituzten 21 etxebizitzetarako**

**Otsaileko soberakina dela-eta, Bilduk aurreikuspen zehatzagoa eskatu du**

Otsaileko likidazioan, udalak soberakina edukitza ere aurrekusi dute. Horregatik, alor batzuek gehigarriak jasoko lituzteke; auzobideen atalak, esaterako. Bilduk salatu du 2011n 1,8 milioi euroko soberakina egon dela, eta hori "zerbait ondo egiten ez" den seinale dela. Aurreikuspen "zehatzagoa" eta era parte-hartzalean egin beharko litzatekeela diote. EAJK erantzun du partaidetzat hainbat eratara sustatu daitekeela, eta eurekerejaso dutela hainbat auzotar zein elkarteren iritzia. ■ M.O.

## ZALDIBAR

## Euskara ikastaroak emango dituzte etorkinentzat

Integrazioa du helburu udalaren ekimenak

Udalak, Amankomunazgoaren laguntzaz, etorkinentzako euskarra ikastaroak antolatu ditu 2012rako. "Udalaren eginbeharra da integracio prozesua erraztea, ahalik eta azkarren, benetako zaldibartar sentitu daitezen", diote oharrean. 60 orduko iraupenaizango du ikastaroak, 30 egunetan

**Ikastaroan parte hartu gura duten etorkinek urtarilaren 13ra arte dute izena emateko aukera; 23an hasiko dira**

banatuta; astelehen, martitzen eta eguztenetan izango dira, 19:00etako 21:00etara.

Ikastaroa urtarilaren 23an hasi eta martxoaren 28an amaituko da. Parte hartu gura dutenek urtarilaren 13ra arte dute izena emateko aukera. Ikastaroan, AISA programaren lehenengo liburuak eta berariazko hiztegi irrididuna erabiliko dituzte. Azken hori doan emango diete ikasleei. Azaldu dutenez, matrikula egitean 20 euro ordaindu beharko du ikasleak, eta amaitutakoan diru itzuliko diote, %80ko asistentzia ziurtatzeko baldintza betez gero. ■ M.O.

## MALLABIA

## Mikel Laboaren omenezko kontzertua abenduaren 16an

Mallabiko Jasokunde eta Mendibil abesbatzek Mikel Laboaren omenezko kontzertua antolatu dute abenduaren 16rako. Abesbatzen kontzertua gaueko 22:00etan izango da pilotalekuaren. Laboaren kantekin prestatu duten emanaldian beste hainbat musikarik parte hartuko dutela azaldu dute antolatzaileek; Mallabiband taldea, Andere Astigarraga trikitilaria, Iñar Sastre piano-jolea, Ruben albokalaria, Markinako txalapartariak eta Luken eta Unai dantzariak.

**Mendibil eta Jasokundeko abesbatzez gainera, beste hainbat musikarik parte hartuko dute kontzertuan**

Iratxe Uribelarrea kontzertuaren antolatzaileetako batek azaldu duenez, musikarieketan duten bitartean Damaris Pan margolari mallabitarrak Mikel Laboaren aurpegia marratztuko du. Sarrera doan izango da. ■ A.U.

## IZURTZA

## Espero baino bisitari eta erosle gehiago I. Gaztardogi azokan

Azokak izandako harreragaz "oso pozik" daude

Abenduaren 6an, herriko patroia-ren egunean, frontoian burutu zuten I. Gaztardogi azoka. Nekazal azoka antolatu duten lehenengo edizioa izateko, "espero baino jende gehiago etorri delako" eta udalek lutzatutako proposamenak "harrera oso ona eduki zuelako" oso gustura agertu dira azokaren antolatzaileak.

**Durangaldeko, Bizkaiko eta Arabar Errioxatik etorritako nekazariak izan ziren azokan**

Herriko zaindariaren eguna, abenduaren 6ko San Nikolas eguna, aukeratu zuten I. Gaztardogi azoka burutzeko.

Durangaldeko, Bizkaiko eta Arabar Errioxatik etorritako nekazariak landutako fruituak eta presstatutako produktuak dastatu eta eroskeko aukera izan zuten Izurtzako Udalak antolaturiko azokaren lehenengo ediziota gerturatu ziren bisitariek.

Durangaldekoak izan ziren bertaratu ziren bisitaririk gehienak. Nekazariak ere pozik agertu ziren salmentekin. ■ I.E.



Lehenengo burutu dute Gaztardogi azoka, frontoian.

**ELORRIO**

# Plan Nagusia errekurrituko du Auzo Koordinadorak

BAOn agertu eta gero, bide judizialetik egingo dute errekursoa; hile batzuetarako joko du

**E**Ako Justizia Auzitegi Nagusian errekurrituko du Auzo Koordinadorak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu berri den Hiri Antolamendurako Plan Nagusia. "Hauxe da geratzen zai-gun aukera, gure alegazio guztiak ez dituzte-eta kontuan hartu", dio-tekoordinadorakoek. Erabakia aho batezhartu dute, "betiko irizpideei eutsiz, EAJ zein ANVren legealdieen mantendutakoak".

Koordinadoratik gogoratzen dutenez, Spri-Lurren partetik bir-kalifikazio industrialerako egindako nekazal lurren erosketak Elo-rioko proposamen urbanistiko

**Erabakia aho batez hartu dute, EAJ zein ANVren legealdietan mantendutako irizpideei eutsiz**

guztiak baldintzatu ditu. Horiguztia, "espekulazioa nagusi" zen garaian egin zela baina "gauregun etxebizitza salerosketa iraganeko kontua" dela eta pabilioi industria-lak "hutsik" daudela diote. HAPNk alde zaharraren bueltako ondarea ez duela errespetatzen, eta Pulla-

**Pulla-Azkarretako nekazal lurren okupazioari "onartezina" irizten diote**

Azkarretako nekazal lurren okupazioa onartezina dela uste dute, "Eusko Jaurlaritzako Ingrumen Sailaren informeak dioen legez". Denon artean izeneko parte-har-tze prozesuak ez zuela balio izan ere salatu gura izan dute, "ondo-rioak ez zirelako planaren txoste-nean barneratu". ■ M.Onaindia.

## Podologia zerbitzua jubilatuen egoitzan

Urte berriagaz batera ipiniko dute martxan zerbitzua; instalazioak egokitutu ditu udalak

Urtarriletik aurrera, udalaren eta Amankomunazgoaren arteko akordio bat esker-Zaindu programaren baitan-, Elorrioko nagusiak jubilatuen egoitzan eskainiko den podologia zerbitzu berria erabili ahal izango dute. "Nagusien aspaldiko eskaera zen. Beraz, martxan jartzea bideragarria zela iku-si onoren, beharrezkoak diren

**Podologoa hileko azkeneko martxetenetan hurreratuko da, 09:00etatik 13:00ak arte**

gestioak egin ditugu, eta aste batzuk barru zerbitzua euren esku izango dute", azaldu du Ana Ota-dui alkateak.

Podologoahilabeteko azkene-ko martxetenetan hurreratuko da, 09:00etatik 13:00ak arte; konsultek 20 minutuko iraupena izango dute. Zerbitzuaren prezioa 11 eurokoa izango da, adierazi dute-nez. Ekimena martxan jartzeko, udalak egoritzako instalazioak ego-Kitu ditu. Gainera, udal ordezka-riak hiru hilabetero batzartuko dira nagusiek, sortu berri duten hirugarren adineko azpibatzordearen baitan. ■ M.O.

## EMEren Gabonetako ekintzak hasita daude

Ipuin, erakusleihoa eta balkoi zein etxaurreen apainketa lehiaketak antolatu dituzte, esaterako

Elorrioko Merkatarien Elkarteak Gabonetako ekintzak antolatu ditu aurten ere. Ipuin lehiaketa, balkoi eta etxaurre apainketa lehiaketa, erakusleihoen lehiaketa, 2.100 eurotako txartelaren zozketa eta beste zenbait ekintza ere aurreikusi dituzte. Joan zen astean, gainera, *Aurkitu eme puntuak* kanpaina berria sortu zuten, komertzio-ten deskontuak eskainiz.

Ekintza hauek, beste komer-tzio handietan egiten ari direnekin "aurrea hartzeko" sortu dituzte, eta baita Elorrioko biztanleei EMEk eta komertzio txikiak egiten duten lanagogorarazteko ere. "Kon-tsumo joerek komertzio txikia arriskuan" jarri duten arren, "aktibitate komertzial honek herrietako gune asko bizirik mantentzeko gaitasuna" duela frogatu gura dute. ■ M.O.

**IURRETA**

# Megane Luxe Privilege bat eman dio Gaursak Iurreta Institutuari

Dohaintzan jaso dute, Iurreta Institutuak eta Gaursak duten lankidetza-hitzarmenaren baitan

Renault Megane Luxe Privilege modeloa jaso du Iurreta Institu-tuak Renault-Gaursaren eskutik. Dohaintza azaroan gauzatuzuten, bi erakundeen lankidetza plana-

**Kontratu horregaz bien arteko elkarlana "sendotuz" doala diote bi aldeek**



Azaroan gauzatu zuten dohaintza ekitaldia Iurreta Institutuak eta Renault-Gaursak. Iurreta Institutu

**Tellitun 20 etxe eta 35-40 aparkaleku egindo dituzte**

Behin betiko onartu du udalak Tellitu inguruko hiri berrikuntza-rako plan berezia. Orain, proiektu eraikitzalea aurkeztu eta udalaren onesprena jasotzea falta zaio enpresa eraikitzaleari, obra lizenzia jaso eta bertan etxebi-zitzak egiteko. Iñaki Totorika-guena alkateak Ura Ur agentzia-ren onesprena ere beharko dute-la gogoratu du.

**Litekeena da 2012ko bigarren seihilekoan eraikitzen hasteko moduan egotea**

**Behin betiko onartu dute Tellitu inguruko hiri berrikuntzarako plana**

Totorikaguenaren berbetean, 2012ko bigarren seihilekoan lanekin hasteko moduan lego ke enpresa eraikitzalea. Lanokin 35-40ra murritzuko litzateke aparkaleku; 70 daude orain. Etxebizitza kopurua, bestalde, 20 izatetik 15 izatera pasatu da; 2009an onartu zuen hasierako plan berezi hori udalak. Ordutik hainbat zuzenketa egin behar izan da, alkateak argitu duenez, egitasmoa moldatuz. Ura agen-tziak proiektua errekatik urrun-tzea eskatu zuen. ■ A.B.

**Herritarak gonbidatuta ospatu du 10. urteurrena Herri Bibliotekak**



Hainbat lagun batu zituen Herri Bibliotekaren 10. urteurrenenak, eta bertan bultzatutako ekimenak ez eze erabiltzaile dituen herriko elkartetako ordezkariekin elkarritzetak batzen dituen ikus-entzunekoa aurkezteko aprobetxatu zuten. Alkate Iñaki Totorikaguen, Oihane Isasi, Ziortza Jaio eta Kristina Mardaras aritu ziren ekitaldian. Luntxa ere izan zuten ondoren.

# NACEX

San Roque, 12 beheha (48200 DURANGO)

Tel.: 94 620 01 62

Mug.: 666 444 101

4810.operativa@nacex.es

www.nacex.es

**Informazio orokorra: 900 100 000**

ren barruan. "Ibilgailuaren erabi-lera didaktikoa zehatztuz" ahalbi-deratu duten kontratuaren izen-petzea ere gauzatu zuten ekital-dian. Gaursako zuzendari orokorra den Alex Rodriguezek eta Iurreta Institutuko zuzendari den Tomas Maguregik parte hartu zuten eki-taldian.

Kontratu horregaz erakunde bien arteko elkarlana "sendotuz" doa. Joan zen ikasturtean ere 24 Renault motor eman zizkion Gaursak institutuari. "Berrikuntzaz horiek eta institutuak urteo-tan eguneratutako ekipamenduei esker, ikasketa-eskaintza indartuz doa", diote arduradunek ■ A.B.

## Europako enpresaen praktikak egiteko aukera

Behargintzak EHUGaz elkarlanean, EPEZ–Enpresean Praktikak Europaren Zehar–programa zabaldu du seigarren biderrez. EHUko 50 tituludun berrik edukiko dute aukera praktika horiek egiteko; Alemanian, Txekiar Errepublikan, Italian, Portugalen, Erresuma Batuan edo Austrian. Eskaera orriak Behargintzan, Bizkaiko Campuseko enplegu gunean edo [www.ehu.es/enplegugunea](http://www.ehu.es/enplegugunea) webgunean daude.

## Aste kulturalak lurreta eta Elorrioko jubilatuek

Iurretako Goiuriko Ama jubilatuen elkar-teak eta Elorrioko La Esperanzak aste kulturalak prestatu dituzte datorren asterako. Hainbat ekitaldiren artean, bazkaritarako ere batuko dira: elorriarrak eguenean, Guria jatetxeen, eta iurretarra zapatuan, jubilatuen etxeen bertan. Bazkalostean omenaldiak egingo dituzte bi elkarretek.

## AHTren kontra kateatu ziren epaia

AHTren kontra protestatzeko 2008an Durangoko Azokan trenbidera kateatu ziren bi pertsonai 40 eguneko isuna ipini die epaileak, eta Euskal Trenbide Sareak eskatutako kalte-ordaina ere ordaindu beharko dute. Fiskaltzak urte eta erdiko kartzela zigorra eskatzen zuen hasieran.

## Enpresaen presoen eskubideen alde

LABek sindikatuak abenduaren 12an kontzentrazioak deitu ditu preso politikoen eskubideen alde, *Egin dezagun bidea* ekimenaren baitan. Berrizko Mafisa aurrean, Atxondoko Cemosan, Zornotzako Alcoan eta Ermuko Amaya Tellerian egingo dituzte elkarretaratzeak, eguerdiko 13:30ean.

### ABADIÑO

## Traña plazako lurpeko garajeen proiektua berriz aztertuko dute

Orain hiru urte oposizioak atzera bota zuen Traña plazan lurpeko aparkalekua egiteko Alko gobernuaren proposamena. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, "orain hiru urte aparkalekuei dago kienez geneukan arazoak biderkatu egin da orduak hona, eta era-mangaitza da batzueta".

Orain hiru urte legez, udalak eman duen lehenengo pausoia Gizakeren presari inuesta bat eska-tzea izan da, herritarrek proiektu hori garatzea beharrezko ikusten duten ala ez eta zelako eskaria lego-keen jasotzeko.

### Zenbateko aparkaleku eskaria legokeen jasotzeko inuesta burutzen dihardute

### Orain hiru urte ere lurpeko aparkalekuari buruzko inuesta burutu zuen Gizaker-ek

Jose Luis Navarro alkateak nabarmendu duenez, udaleko batzorde batean mahai gainera-tu zuen proposamena, eta Bildu zein EAJ ere ados agertu ziren inesta burutzeagaz.

Inuesta horretan herritarrek agertzen duten eskariaren arabera erabakiko dute, alkateak azaldu duenez, "solairu bakarreko aparkalekua edo bikoa behar dugun, zenbat plazakoa, etab.".

Inestagaz jasotako emaitzak urtea amaitu baino lehen ago esku artean edukitzea aurreikusten du gobernu taldeak. ■ I.E.

## Herriari dohaintzan eman dizkie Jose Luis Lizundiak 674 liburu

Abenduaren 3an, Traña-Matiako Errota kultur etxeen egin zuten dohaintzaren aurkezpena

**G**ogaikarri bertso eskolako eta Iluntze dantza taldeko kideek egin zuten Euskarra Egunaren harira antolaturiko dohaintzaren aurkezpen eki-taldiaren sarrera, abenduaren 3an. Udal agintariak eta liburutegiko arduradunak batu ziren, besteak beste, ekitaldian.

Guztira, 674 liburu dira Jose Luis Lizundia euskaltzainak Abadiñoko liburutegiari dohaintzan emandakoak; lehen ediziokoak

**Euskal idazle klasikoak lanak dira asko, eta politika edo hizkuntzalaritzari buruzkoak bildumako beste hainbat**

denak. Euskal idazle klasikoen lanak, hizkuntzalaritza, politika, historia eta geografiari buruzkoak dira, esaterako, liburuak.

Jose Luis Navarro alkateak, Ima Zapardiez kultura zinegotziak eta Argi Abad euskara zinegotziak hartu zuten ekitaldian parte, eta liburutegiak dohaintzan jasotakoak "euskaltzain eta euskaltzale honen kezkak islatzen dituzten garrantzi handiko liburuak" direla nabarmendu zuten.

Errota kultur etxeko liburutegian sailkatu, katalogatu eta ikusgai ipini dituzte Lizundiak dohaintzan emandako 674 liburuak, eta udalaren webgunean ere ikusgai daude. ■ I.E.



Lizundia, bilduma aurkezten, Liburutegian.

## Pleno guztiak udalaren webgunean ikusgai

Udaleko hiru alderdiek adostu dute erabakia

Gobernu taldeak komunikabideetara bidali duen oharrean azaltzen da, udaleko hiru alderdiak ados jarri eta gero, aurrerantzean "pleno guztiak grabatu eta udalaren webgunean eskainiko" dituztela.

Prentsa ohar horretan esaten denez, "Abadiñoko Independienteak, Bildu eta EAJ alderdiak bat eitorri dira osoko bilkurak grabatzeko eta ezagutzera emateko, gai-

nerako agiri publikoak herritarrerentzat eskuragarri jartzeko dagoen prozedura berabaliatuz".

Enpresa pribatu batek egingo ditu grabazioak, eta, gobernu taldeak azpimarratu duenez, bideoaren "kopia lortu gura duenak bere burua identifikatu eta eskaera aurkeztu beharko du, gainerako agiri publikoak lortzeko prozedura bera jarraitu". ■ I.E.

## Abadiño Sarien gala, herrikideak omentzeko

Abenduaren 16an burutuko dute ekitaldia

Abenduaren 16an, Errota kultur etxeen burutuko dute Abadiño Sarien bigarren gala. Iazko moduan, hainbat arlotan "Abadiñoren izenazabaldu dutenen eta modu altruistak jardundako norbanako eta taldeen lana gorapatzeko" bost sari banatuko dituzte.

Eneritz Iturriaga etxabarria, Gerediaga elkartea, Gorakada antzerki taldea, Edurne Astigarraga

ga eta Mila Salterain dira aurten udalaren eta herrikideen gorapamena jasoko dutenak.

Besteak beste, herriko kantari gazteek hartuko dute parte, abenduaren 16an, 20:00etan hasita, Traña-Matiako Errota kultur etxeen burutuko duten sari bana-keta ekitaldian. Iazko alegez, "ekitaldixume baina hunkigarria" izan dadin gura dute. ■ I.E.

katerin  
ardoak  
iñaki  
uribe

KURUTIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan** saLtsan.com

gremioen koordinazioa  
**untiaga**  
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak  
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi  
erakusketa, salmenta eta ipintzea  
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

BILBAO ASEGURUA  
Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

**BODEGUILLA**  
TRAÑA-MATIENA  
Tel.: 94 681 43 85



**Hemen agertu  
gura badozu  
deitu!**

94 621 79 02



## Eguenetan 'Pintxo-pote'-a eskaintzen hasiko dira Askatasun etorbide inguruko 7 taberna

Tragoagaz batera pintxoia 1,80 eurotan salduko dute eguenero Durangoko zazpi tabernek. 'Pintxo-pote' ekimena martxan ipini dute Bidebaltz, Caledonia, Lekker Barri, Lupetza, Suso's Bar, Urixka eta Xixilu tabernek. Eguenetan poteo mugimendua sortu eta taberna eta merkatari txikien lana sustatu gura dute. Abenduaren 15ean, 18:30etik 22:00etara egingo dute lehenengo saioa.

**K**risiak sormenari ateak zabaltzen dizkiola esaten dute, eta horrelaizango da. Ostalaritza arloan, Gasteizen, Zumaian, Zarautzen... bezeroak erakartzeko 'Pintxo-pote' delakoa ipini dute martxan, eta Durangon ere datorren astetik aurrera aukerarohi egongo da: 1,80 euroren truke eskainiko du tragoa eta pintxoia hainbat tabernak.

Askatasun etorbide inguru tabernak dira ekimeneko partaideak: Bidebaltz, Caledonia, Lekker Barri, Lupetza, Suso's Bar, Urixka eta Xixilu. Zergatik aukeratu dituzte eguenak? "Barikuetan eta zapatuetan jendeak Goienkalen poteatzeko ohitura dauka", azaldu du Sara Mardaras Lupetza tabernakoak, "eta poteo gune bat eguenetan sortuta, Goienkaleri kalterik egin barik beste aukera bat sortzea da ideia".

Krisia tartean dagoela-eta, jendeak gutxiago poteatzen due-

### Krisiagatik eta ohitura aldaketengatik gutxiago poteatzen dela diote tabernarieiek

lakontatu digute tabernarieiek, baina krisia baino lehenago ere ohiturak aldatzen hasita zeudela dio Paqui Ramirezek: "Lehenago udan hamar mahai izaten genituen terrazan, eta ez zen lekurik egoten". Duela bost urtetik hona jendeak gutxiago irtetzen duela eta etxera ere goizago erretiratzentzela nabarmendu du Ramirezek.

### Hilero sari bat

Tabernak batu eta elkar laguntzeko ekimena izateaz gainera, inguruko merkatari txikiei bultzada emateko aprobetxatu gura dute 'Pintxo-pote' delakoa; hilean behin

80 euroko erosketa bono bat zozketatuko dute tabernaz taberna dabiltzan bezeroen artean.

Zozketan parte hartzeko pintxo-poteoko zirkuituko tabernetan txartelak banatuko dituzte. Txartelaren alde batean bezeroak bere datuak idatzi beharko ditu. Beste aldean laukitxoak daude tabernen izemekin; taberna batean edaria eta pintxo hartzera, laukitxo horietan zigilua ipiniko dute tabernarieiek. Horrela, lauki guztiek zigilu bana dutenean, txartela tabernetan egongo den kaxa batean sartu eta zozketan parte hartu ahal izango da.

Hilero egingo dute zozketa, eta lehenengoa urtarrilaren 16an izango da. Lehen zozketako saria Ananda zentro estetikorako bonoa eta 6 litroko Paternina botila izango dira; "inguruko merkatari txikiei gustatu egin zaie ideia", dio-te, "azkenean saria elkar promozionatzeko modu bat delako".

Sariagaz eta txartelaren metodoagaz, taberna guztieta mugimendua egotea lortu gura dute: "Saria hasieran jendea erakartzeko izango da, baina gero ohitura sortzea itxaroten dugu".

### Pintxo-poteoan parte hartzen dutenen artean zozketak egingo dituzte hilero

#### "Denok irabaziko dugu"

Bezeroek, tabernarieiek eta inguruko merkatariekin, denek zerbaitzirabaziko dute 'Pintxo-pote' ekimena, Sara Mardarasen ustez: "Bezeroak pote batzuk merke harutta eta afalduta joango dira etxera, guk mugimendua edukiko dugu, eta hornitzaleak ere pozik egongo dira, krisiagaz saltzea

gehiago kostatzen zaielako". Pintxoagaz batera, kriantza ardoa ipini dute edari izarren artean. 1,80ren truke mokaduagaz ardo hori, Rueda, ardo zuria, zuritoa, mostoa zein ura edan ahalko dute bezeroek.

Bezero batzuei ideia komentatu zietenetik ekimena noiz hasiko duten behin baino gehiagotan galdetzen dietela aipatu du Paqui Ramirezek. Sare sozialen ere badabiltza 'Pintxo-pote'-aren berri ematen, eta Facebook-en ia 300 lagun inguru dituztela azaldu du Mardarasek. Bertan informazioa eta argazkiak pintzen hasteko asmoa daukate.

Tabernarieki hasi dira giroa berotzen. Eguenetan poteo gune desberdin bat sortzeko ilusioagaz dabilta. Datozen eguenetan ikusiko da zelako erantzuna daukaten; jendeak asteburua egun bi lehenago hasi eta erdi afalduta etxera joateko aukera edukiko du.

# PINTXO - POTE

PINTXOA + EDARIA 1,80 €

## Ostegun arratsaldero

**EDARIAK:**  
Kriantza, zuria, gorria,  
zuritoa, ura eta muztioa



# BERBAZ<sup>></sup>

## *"Euskarak aurrera zenbat egingo duen euskaltzale guztien esku dago"*

Sortzezko elkarlanari eutsiz, indarrak batzeko gogoeta abiatu dute Berbaro elkartea, Plateruenak eta Anbotok



**Euskaraz bizitzeko  
Eaukerak sortzea; horra  
hor Berbaro, Platerue-  
na eta Anbotoren helburu  
nagusietako. Azken urte  
honetan gogoeta prozesu  
baten dabilta hiru elkar-  
teak, eta horren fruitu izan  
da, besteari beste, 'Euskarak  
365 egun' kanpaina.**

Berbaro, Plateruena eta Anbotoren lotura sendotzeko premia  
nabaritu duzue. Zergatik?

Gorka Barruetabeña: Berbaroren gogoeta batean, duela urte  
batzuk, zera ondorioztatu  
genuen; gure lanaren oihartzuna  
ahalik eta luzaroen mantentze-  
ko egin behar genuela lan. Gure  
baliabideak ikusita, iraunkorak  
izateaz gain, autosufizienteak  
izan behar ziren proiektu horiek.  
Hortik datoz sasoi bateko Berbaro  
taberna, haren gaineko sozie-  
tate gastronomikoa, eta Anboto  
eta Plateruena ere bai. Berbarok  
asiadiaren inguruan sortutako  
zerbitzu profesionalak ere ira-  
kurteta horretatik dator. Proiek-  
tu horiek hartu duten bolumen-  
nagatik eta egon diren pertsona  
aldaketengatik, aldenduz joan  
dira; hazi ahala indarrak sakaba-  
natu egin direla konturatu gara.

Nerea Iriarte: Gainera, badago  
hasierako filosofiarri eta elkarlan-  
ari heltzeko kezka ere. Profesionalizatz  
prozesu bat egon da, beharrezkoia izan dena, eta  
horrek militantzia moduko  
aspektu garrantzitsu batzuk  
bigarren mailan uztea eragin du.  
Ez dugu ahaztu nahi nondik  
gatozen, zer garen eta nortzuk  
osatzen dituzten elkarre hauetan.  
Elkarrekin, gainera, banatuta  
baino errazago egin daitezkeen  
lan batzuk daude.

Orain arteko batzarretan zer  
ondorio atera duzue?  
G.B.: Erabakigune bat sortu da  
elkarre bakoitzeko hiru ordezka-  
rigaz. Oraindik ez dakigu zenba-  
terainoko erabakiak hartuko  
dituen gune horrek, baina bidea  
markatuko digu. Euskarak 365  
egun kanpaina gune horretatik  
etorri da, adibidez.

**Euskara urte osoan  
erabiltzeko mezua  
jende askok  
konpartitzen du**

"Berbarotik jaiotako proiektuak hazten  
eta sakabanatzen joan dira; indarrak  
batuta lan batzuk erraztu ditzakegu"

**Zelan sortu zen kanpaina hori  
egiteko ideia?**

G.B.: Euskararen Eguna zelan  
"erabiltzen" den ikusita, hiru  
elkarre batera agertu eta gure  
ikuspuntua emateko gogoa  
geneukan. Euskarak urteko egun  
guztietan egin behar den mezua  
jende askok konpartitutu duela  
pentsatzen dugu; badago jende  
multzo bat mezu hori jaso eta  
gugaz konpartitzeko prest. Zen-  
bat pertsona diren ez dakit, bai-  
na badaude.

**Zelan ikusten duzue euskararen  
erabilera Durangaldean?**

G.B.: Nire impresioa da euskal-  
taletasuna duela urte batzuk  
orain baino biziago egon zela,  
nahiz eta orain euskarak dakien  
jende gehiago egin.

N.I.: Normala da prozesu hori,  
hizkuntzak normalizatzen doa-  
zen eran, larrialdi sentsazio hori  
bajatu egiten da.

G.B.: Hezkuntza eta beste arlo  
batzuk normalizaziorantz doaz,  
baina hainbat arlo ez dira inon-  
dik inora normalizatu, eta oztopatu  
egiten dute eguneroko bizi-  
tza euskarak egin ahal izatea.

Durangaldean euskara barik  
lasai-lasai bizi daiteke; orduan  
zer motibazio edukiko du per-  
sona batek euskara ikasteko,

alde errontikoa ez bada?

N.Z.: Lehenago urgentzia bat  
sentitzen zen; euskara salbatu  
beharreko zerbait zela. Orain  
jendeak erdi salbatuta dagoela  
ikusten du; arriskuei buruz ber-  
ba egiterakoan gehiegizkoak  
garela esaten dute batzuek.

G.B.: Ez dugu jendea ezertara  
derrigortu gura, baina, behin-  
tzat, utzi diezagutela euskarak  
bizi. Aukerak sortu beharko  
dira euskara erabiltzeko, eta euskarak  
ez dakien hori ikastera  
motibatu beharko dugu.

**Naia Zarzosa,  
Gorka  
Barruetabeña eta  
Nerea Iriarte •**

■ Berbaroko, Anbotoko eta  
Platerueneko presidenteak.

"Agintarien zain  
egen barik, ekin  
eta euskarak bizi  
gura dugula esan  
behar dugu"

*Naia, Berbarokok zelan ikusten  
duzuegazteek euskarak duka-  
ten hartu-emana?*

N.Z.: Ez da erraza gazteak era-  
kartzea, baina urteetan egin den  
hutsunea eta gero bagabiltza  
gazte taldeagaz lanean Gugaz-  
Ten. Eurek askotan ez dituzte  
horrelako kontuak planteatu ere  
egiten. Etorkin gazteekin Gurean  
proiektua daukagu, eta erronka  
handia da eurekin lan egitea.  
Kalean erdera entzun eta hori  
ikasten dute, eta ez da hain erra-  
za euskarak erakartzea. Umeek-  
eta ikastetxeetan ikasten dute,  
baina edade batetik aurrerakoe-  
tan gaitzagoa da.

*Hiruelkarrean elkarlan honetan,  
zeintzuk izango dira hemendik  
aurrerako helburuak?*

G.B.: Langileei begira transmisio  
eta formazioa landuko dugu, eta  
kanpora begira, hiru erakunde-  
on zerbitzuak eta egin gura  
duguna gizarte eragileei azaldu-  
ko diegu, administrazioekin eta  
gizarte elkarrekin zelan lan egin  
genezakeen ikusteko. Durangal-  
deko euskaltzaleekin gure hel-  
buruak konpartitzeko beste  
indar bategaz agertu gura dugu.  
Azken finean, euskarak aurrera  
zenbat egingo duen euskaltzale  
guztien eskuetan dago. Ezin gara  
egon agintean dauden zain;  
guk esan behar dugu euskarak  
bizi gura dugula. ■ A.Ugalde



# ESKERRIK ASKO PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI!



Bideoa eta argazki gehiago: [anboto.org](http://anboto.org)



# IRITZIA >

[gutunak@anboto.org](mailto:gutunak@anboto.org)

## Durangaldeko Etxeratek herritarrei

Etxeraten konpromisoa argia da: euskal jendartearren gehiengo sozial, politiko eta sindikalarekin batera lan egingo dugu pertsona guztiak eskubide guztiak errespetatuak izango diren eszenatoki bat eraikitzen. Hau da, konponbide demokratiko eta integratzale bat atea parez parezabalduko dizkion eszenatokia. Hau da, preso, erre-fuxiatu, deportatu eta iheslaririk gabeko eszenatoki demokratikoa.

Datorren urtarrilaren 7an ardatz hauek berretsi ditugu. Izan ere, Etxerat elkartek bere atximendua ematen baitio Egin Deza-gun Bidea ekimenak urtarrilaren 7an Bilbon deitu duen herri mobilizazio orokorrari. Horrekin batera, asteburu horretan Espaniar eta Frantziar estatuetan, Belgikan, Ingalaterran, Irlandan, Mexikon edo Portugalgo espetaetean aurreikusita genituen bisitak burutuko ez ditugula iragartzen dugu.

Gure erabaki propioada, eta arrazoigaribategatik egiten dugu: urtarrilaren 7an Bilbon gure senide eta lagun preso eta iheslarien eskubideen alde burutuko den herri mobilizazio orokorrear parte hartzeko. Sinistuta gaude herri mobilizazio orokorrak kolosalia izan behar duela. Eta, ziur gaude, hala izango dela. Hortaz, euskal jendarte osoari urtarrilak 7ko herri mobilizazio orokorrear parte hartzeko dei egiten diogu. Hitzordu historikoa behar du, hito bat markatubehardugu. Horiek horrela, herri mobilizazioaren orduan komertzioak eta dendak ixtera eta aurreikusita dauden kultura, kirol eta bestelako jarduerak bertan behera uzteko gonbita luzatzen diogu euskaljendartea. Denok egon behar dugu Bilbon, guztiotzakoleku egongo da. Euskal jendartearren gehiengo handi batek Bilboko kaleetan bat egingo du.

Ziur gaude datorren urtarrilaren 7ko herri mobilizazio orokorra Euskal Herrian burutzen den martxarik erraldoi eta parte-hartzaleen etarikoa izango dela. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde gauden guzti-guztioa topagunea izango da. Denok egin dezagun bidea, kolosalia izan dadin gure senide, lankide, ikaskide eta lagun preso eta iheslariak beraien eskubideen jabe lemapean egongo den herri mobilizazioa.

Durangaldeko Etxerat

## Plenoen grabaketa

Udalbatzak kameraz grabatuak izan daitezen lortu dugu, baina Jose Luis Navarro alkateak azpijkekoan jarraitzen du. Bildu Abadiñotik, hauteskundeetara gure burua aurkeztu genuenean, beste hainbat egitasmoren artean, udalean benetako demokrazia parte-hartziale baten aldeko lanketa oso bat egingo genuela adierazi genizuen herritarroi. Hitzekoak garenez, oposizioan egoteak dituen zaitasunen gainetik, gureherri projektua aurrera eramateko helburuarekin lanean dihardugu buru-belarri, eta, zorionez, oztopoak oztopo, gure lanak lorpen batzuk ekarri ditu dagoeneko.

Ildo horretan, aipatzeko dugu azaro honetatik aurrera udalbatzak kameraz grabatuak izango direla. Bildu Abadiñoren lan gogorria esker, Jose Luis Navarro alkateak, zeinak herritarbatek kameraz grabatzeari uko ez egiteagatik aurreko udalbatza bertan behera utzi zuen, behartua ikusi du bere burua erabaki hau hartzera. Hasiera batean alkateak, udalak berak grabatu eta bere web orrialdean erabiltzaileak deskargatu ezin ahal izateko eran zintzilikatzea proposatu zuen. Bilduren bozeramaileak, orduan, era horretan herritarrei zein eragileei udaleko informazioa beraiei egokien iruditzen zaien eran zabaltzeko oztopoa jartzen zitzaiela argudiatu eta grabaketak herritar ororentzat eskuragai izatea aldarrikatu zuen. Honako baldintzak adostu zituzten: 1) Osoko bilkurak udalak erabilitako baliabide teknikoekin grabatuko dira kameraz; 2) Bukatu eta 48 ordura udalbatzakik usai jarriko dira udalaren webgunean; 3) Talde politikoek zein herritar orok izango du grabaketaren kopia bat jasotzea aukera, hala eskatuz gero.

Bilduren eskutik izandako lorpen honen ondoren, oraindik ere bide luzea dugu herritarren partaidetza bermatzeko, eta horretan jarraituko dugu orain arte bezela. Adibide gisa, azken plenoan bertan Bilduko bozera-mialeak alkateari egin zion eskaria: udalbatzen hitzordua eta gai-ordeña bando bidez zabaldu dezala, orain arte Bildu Abadiñok plenoen aurrelik egin izan duen bezela.

Zoritzarrez, ordea, ez dirudi Navarrok legeak horretara behartzen due-nean, berau justuki betetzeaz urrinago pausorik emango duenik. Horren lekuco dugu grabatua izan zen lehen plenoan erakutsitako jarrera lotsagabea. Galdera-erreguetan, aurrez zinegotzi izandako herritarbatek AHT-ko mozio baten gainean Navarrok gezurra esan zuela gogoratu nahi zue-nean, koloreak aterako zizkion beldurez, udalbatza amaitutzat eman zuen, era horretan zinegotzi ohiaren berbaldia grabatua izan ez zelarik.

A. Azueta, S. Zuazubiskar, H. Urrutia, I. Gorospe eta M.L. Larrinaga (Bildu - Abadiño)

## Preso eta iheslarien eskubideen alde, herri bilgunea

Euskal Herrian irekitzen ari den sasoi berriaren harira sortutako ekimena da Herri Bilgunea, Durangoko presoen senideen eta hainbat herritarren gogoetatik abiatutako; gurean ere, zoritzarrez, egoera oso latza bizi duten 17 preso baitauzagu. Garaiotan tokiz kanpo dagoen bortizkeria jasaten dute, egunero, Frantzia eta Espanian barrena sakabanatuta dauzkatuen gure hurbilekoek. Errepresaliatuen eskubideen alde lan egin eta gatazkaren ondorioak behin betirako gainditzeko xedearekin, zereginan lagun gehiago biltzea espero dugu eta horregatik ari garajendartean gure ekimenaren berri ematen. Azken hiletan gatazkaren konponbiderako ezarri diren oinarrisendoak ardatz hartuta, giza eskubideen urraketa lehenbailean desager dadin lan egiteko asmoa daukagu. Gehiengo sindikal, politiko eta sozialak hamaika aldi zeskatu duena indar handiagoarekin exijitzeko unea dela deritzogu. Hori dela-eta, datozen ekimenetan parte hartzeragonbidatzen zaitzegu: Abenduaren 30ean Durangon, eta urtarrilaren 7an Bilbon egingo diren manifestazioetara; Egin dezagun bidea lemapean, premiazko neurriak berehala har daitezela eskatuko dugu. Preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenetan elkarikuste espero dugu, kaleak betez, kartzelak lehenbailean hustutzeko.

Durangoko Herri Bilgunea

## Galdera simple bat

Egia esan, ez nuen ezer esateko asmorik baina lehengo asteko *Anboto* ikusi nuenean eta laranjondoaren pasadizoa irakurri ondoren, konturaz naiz gero eta "amigo de lo ajeno" gehiago dagoela bazterretan. Galdera simple bat luzatuko dizuet: menditik zoazela ermita baten aurrean etapago landarasa sartu berribaten ondoan, kristalezko lorontzi baten barruan lora lehor batzuk aurkitzen baditzu, zergatik daudela bertan uste duzu? Bai, halaxe da; denok pentsatzen dugu berdin.

Historio txikitxo bat kontatuko dizuet: orain hiru hilabete gure 23 eguneko umetxoan hil zitzagun. Erre egin genuen eta bere errautsak guretzako esanahi berezia duen ermita eta pago landara horren ondoan bota genituen. Lore lehor horiek bertan lurrean utzi genituen, egun batzuren buruan joan eta ermitan usteko asmoz.

Zuetako inork hori aurkituz gero zen egingo zuen? Hara non, gure sorpresa, bertaratuz ginen egunean ezer aurkitu ez genuenean.

Oroigarri hori eraman zuen pertsonari zera esan nahi nioke: larrosa buru lehor horiek gure umetxo Luzio jaio zenean oparitutako erramukoaak dira, eta egunen batean kuriositatea baduzu eta buru horiek kentzen baditzu, azpian aurkituko duzun paperean idatzita dagoena, jakin eza zu nik nire umetxoari kantatzen nion abestia dela.

Eskerrik asko, gure samina errespetatzeagatik.

Nerea Goiti Areitio - Izurtza

## ■ Sei hankako mahai



Urdaspal Bolinaga  
Bildu

## Euskaraz bizi nahi dut

Aurten ere, urtero legez Durango erreferentzia izan da egunotan, Euskal Liburu eta Diska Azokaz gozatzeko aukera izan baitugu. Azoka barnean stand desberdinak netako produktuekin (liburu, cd, jolas...) baita Azoka kanpoan Euskal Herriko eragile desberdinak antolatutako ekitaldiekin; independentisten ordu berdea bezalakoak. Lan bikaina egin dute guztiak, zorionak!!!

Pen a urtean bost egun iza-tea soilik; imajinatu zein aberasgarria izango litzatekeen Durangoarentzat, Azokan dauden kultur sortzaileek gune bat izango balute herrian; "Euskal kultur sortzaileen gunea". Beraiek bertan euren lanak sortu, dakiten jakintzak transmititu eta herriak beraien lanaz gozatu ahal izateko urte osoa.

Beste alde batetik, euskararen eguna ere izan da, nahiz eta nik euskararen urtean sinetsi. Egun bakarra eskaintzea gure hizkuntzari anekdotikoa da, egunero baloratu behar dugu daukagun altxorra.

Euskaraz bizi den Euskal Herria gauza ona da denontzat. Ez du arriskuan jartzen euskaldunaren erdara. Ezta gaztelania eta frantsesaren garapen osoa ere, euren lurrarde historikoetan. Euskal Herria euskararen lurralde bakarra da, eta bertan sarritan gaztelaniara, jotzen dugu euskaraz ez dakinenkin "errespetua" iza-teko. Akaso Alemanian, Frantziar, Ingalaterran... gaztelanieraz hitz egingo liekete? Edo bertako hizkuntzara moldatzen saiatuko liratuke? Zergatik Euskal Herrian ez?

Herritarrok gara euskarera erabiltzeko eta Euskal Herri euskalduna berrosatzeko eragile, babesle eta berme. Horrenbestez, ezin-bestekoa da herrigogoa indartzea. Euskararen alde egotetik "euskaraz bizi nahi dut"-era pentsamendu aldatzea eta erdaraz egitik "euskaraz egitera" portaera jiratzea eta eguneroko ohitura bihurtzea.

Bihur dezagun euskararen eguna euskararen urte.

## Laguntzaileak:



Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



durangaldeko  
astekaria

2011ko abenduaren 9a  
10. urtea - 440 zk.

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

### Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

### Administrazio burua:

Itziaz Belar.

### Administrazioa:

Miren Abasolo.

### Publizitatea:

Goretti Alonso,

Amaia Huarte.

### Erredakzioa:

Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia,

Amaia Ugalde.

### Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

### Testu zuzentzailea:

Igor Elortza.

### Argazkilariak:

Kepa Aginako eta Juanira de la Cruz.

@anbotokultura

# KULTURA<sup>></sup>

BALORAZIOA&gt; DURANGON

## Irazabal: "Sorkuntza ez dagoela krisian erakutsi du Azokak"

Durangoko 46. Liburu eta Disko Azokako azken egunean, prentsurrean agertu ziren Gerediaga elkarteko kideak atzo. Hiru hamarkadatan azokako zuzendari jardun duen Jon Irazabalen ordezkoa aurkeztu zuten bertan



Txelu Angoitia. Gerediaga elkardea

**G**erediaga elkarteko Nerea Mujika lehendakariaren ahotik jaso zuen aurten go Azokaren balorazioa plazartzeko antolaturiko prentsurrekoan, Jon Irazabal iurretarra "esker ona". Hogeita hamar urtean Durangoko Azokaren antolakun-

Aiert Goenagak hartu du Irazabalek emandako zuzendaritzaren testigua

tzan jardun ondoren, hauxe izan du zuzendari legez azkeneko edizioa Irazabalek. Azokaren historian izan duten garrantziagatik, sei lagun hartu zituen agerraldi horretan Irazabalek gogoan: Jose Luis Lete, Jabier Zurikarai, Jose Luis Iturrieta, Itziar, Epi eta Ester".

Durangoko Azokaren zuzendaritza taldeko Aiert Goenaga ondarrutarrak hartu du Azokaren datozen edizioen zuzendaritzaren testigua. Ondoan izango duen taldeari egin dio Goenagak erreferentzia, eta "erronka oso motibagarria" dela azpimarratu.

Azoka ez dela Landakogunea bakarrik azpimarratu du agerraldi horretan Goenagak, eta gunez guneko balorazioa egin. Berbaro elkarrekin kudeatzen duen Haur Literatura Aretoak, Ahotseneak, Topagunea elkarrekin lehenengoz antolaturiko Irudieneak, San Agustin kulturguneko Szenatokia eskaintzak, eta UEUREkin batera martxan ipinitako Kabi@ teknologikoa berrien topaguneak ere "publikoaren erantzun bikaina" izan dutela adierazi zuen Goenagak. Gainera, Plateruena kafe antzokiak azokari ematen dion "sekulako babes" eskertu zuen, eta Euskal Dendak 20.000 bisitari jaso dituela aipatu.

Eguazten iluntzera arte, 105.000 bisitari igaro ziren Landakogunetik

Bizi dugun krisi testuinguru honetan ere Durangoko Azokak "sorkuntza ez dagoela krisian" erakutsi duela azpimarratu zuten aurten go edizioaren balorazioa egiterakoan. Bisitari kopuruak harutzituzten ahotan: Jon Irazabalek azaldu zuenez, Landakogunearen sarrera guztietan ipini dituzten kamera termikoek emandako datuen arabera, eguzten iluntzera arte, 105.000 bisitari igaro ziren Landakogunetik.

Aurten gonbidatua izan den Galiziako herriarekin eta kultura-rekin Durangoko 46. Liburu eta Disko Azoka honetan sortu den hartu-emana nabarmendu dute: "Hemen egindako kontaktuekin lanean jarraitzeko asmoa agertu dute sortzaileek". ■ I.Estebe



## Bizkaiko Aldundiaren Lauaxeta saria jaso zuen Azoka egunen atarian Gerediagak

Joan zen egunean, Bilboko Foru Jauregian ospatu zuten ekitaldian eta Jose Luis Bilbao Ahaldun Nagusiaren eskutik jaso zuen Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidenteak Lauaxeta saria.

Saria Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren eskutik jaso zuen Mujikak

Besteak beste, Durangoko Liburu eta Disko Azoka antolatzeten duen elkarrekin egindako lana aitortu zuen ekitaldian Jose Luis Bilbao. "Arreta handia eskatzen digun erronka daukagu", azpimarratu zuen Bilbao: "egunen-egunean euskaldunagoa den gizarte honetan, elkar harutta gainditu behar ditugu ohitura eta joera zaharkituek euskararen eguneroko ibilerari jartzen dizkioten trabak eta oztopoak".

Durangaldeko Gerediaga elkarrekin hamarkada luzeetan eta hainbat kultur arlotan egindako lana azpimarratu zuen, joan zen astean burutu zuen ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiak: "Besteak beste, Durangaldeko ondare historikoa, artistikoa eta dokumentala berreskuratzen, folklore adierazpenak mantentzen eta ikerketa-lan berriak sustatzen" jardun izana hartu dute aintzat saria eskaintzeko.

## ARGAZKIGINTZA &gt; ERAKUSKETA

**U**rtarrilaren 1era bitartean, Durangoko Arte eta Historia Museoko lehenengo solairuan izango da Santos Zalduegui argazkilariak osaturiko *Urkiola natural* izeneko argazki bilduma. Urkiolako parke naturalean edo inguruetan egindakoak dira erakusketarako batutako argazkiak, eta naturaren alderdi abiotikoa islatzen dute guztiak: arrokak, mineralak, fosilak, kobak, geoformak, etab. dira argazkietako protagonista.

Naturaren alderdi abiotikoa agertzen da argazkietan: kobak, mineralak, fosilak, arrokak...

Anbotoko haitzak, antzinako mina esplotazioen arrastoak eta bertan behera utzitako makinaria, edo parke naturalaren barruan gaur egun ere gertatzen diren mineral espoliazioak dira Santos Zalduegui argazkietan jasotako gaietako batzuk.

Helburu didaktikoagaz sorturiko da, egilearen berbetan, erakusketa. "Defenditu, babestu eta hedatu egin behar da natura abiotikoa", dio argazkilariak. Gogoeta era-gin gura du egileak erakusketagaz: "Pentsatu zelako iraultza eragingo duen

## Urkiolako geologia, Santos Zaldueguiren argazkietan

Abenduan Durangoko Arte eta Historia Museoan egongo da erakusketa



Ingurumen planetan naturaren alderdi abiotikoa txertatzea aldarrikatzen du argazkilariak

naturaren alderdi abiotikoa ingurumena kudeatzeko plangintzetan txertatzeak", dio.

"Naturaren osotasunaren inguruko ikuspegi berria eskaini" gura duela dio erakusketako argazkien egileak, eta Urkiola haritu da eredu moduan. ■ I.E.

## ZINEMA &gt; EMANALDIA

### Zineuskadi elkartean batu dira zortzi herri, tartean Elorrio

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Ibaia eta EPE-APVekoizleen elkarrekin sor-tu dute Zineuskadi elkartea. Oraingoz, Gipuzkoa eta Bizkaiko zortzi herrik egin dute elkardegaz bat; tartean, Elorriok.

Eguaztenean aurkeztu zituzten elkar-tea eta bere helburuak: Blanca Urgell kultura sailburuak azaldu zuenez, EAEko "ikus-entzunezko sektorearen garape-nean laguntzea eta enpresak zein profesionalak bultzatzea" da helburua.

**Herrietako aretoen digitalizazioa**  
Zineuskadiko Mikel Toral presidenteak aurkezpenean aipatu zuenez, "gertueneko, herrietako zinema aretoen digitalizazioa da proiektu honetan giltzarria".

Areto komertzialetan lekua egitea oso zail izaten dutela ekoizleek azpimarratu dute ekimenaren bultzatzaileek, eta arazo horri irtenbidea emateko sortu dutela, besteak beste, elkartea.

Blanca Urgellek azaldu zuenez, departamentuaren 120.000 euroko diru-lagun-tza jaso du proiektuak. Aretoen sarea sorr-terra bideratuko dituzte 52.000. ■ I.E.

## Abenduaren 15ean, urteko azkeneko dokumentala


Hilero legez, Elorrioko Iturri kultur etxearen izango da Hilean Behin-go zita

XX. mendeko modaren, artearen eta kultura-ren aitzindaria izan zen Vidal Sassoon ile-apaintzailearen inguruko lana da. *Vidal Sassoon: artaziek mundua aldatu zuen gizona* izenburua daramana. Abenduaren 15ean, 19:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxearen emango duten dokumentala.

Dokumentalaren aurkezpen orrian esaten denez, "Vidal Sassonen 80 urteko iraultza sozial, kultural eta sexuala" jasotzen duen lana da Craig Teper-ek zuzendu eta 2010ean AEBetan ekoitzi zuten.

"80 urteko iraultza sozial, kultural eta sexuala" jasotzen du Vidal Sassoon lanak

pan ekoitziriko dokumental bat eskaintzen dute hilero, 2009an ekimenagaz bat egin zutenetik. Aldi berean 44 hiri eta herri-tako hainbat zinema aretoetako pantaletan eskaintzen dira gai sozialak lantzen dituzten dokumentalak. ■ I.E.



### PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia



ABENDUAK 9 21:00etan  
**DECAPITATED + ABORTED**  
+ DECREPIT BIRTH + CYANIDE  
SERENITY + ARCHSPIRE  
KONTZERTUA. 18-22euro.

ABENDUAK 11 18:30ean  
**SENEGALEKO DANTZAK**  
DANTZA IKUSKIZUNA. Sarrera doan.

ABENDUAK 16 18:00/20:00etan  
**ROCK IZAR ESKOLA GAUA**  
18:00 HAURREKIN / 22:00 NAGUSIEKIN  
KONTZERTUAK. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

## CONTRA EL VIENTO DEL NORTE

Tantaka Teatroa

Abenduak 11 • 19:00

San Agustin  
KULTUR  
GUNE  
DURANGOKO UDALA

## GEURE DURANGALDEA




**Jon Ander Urkiaga,**  
Ikaslea

## Argitaletxeen erosarioa

Gure Aita,  
Durangoko Liburu eta Disko Azoka-n zarena,  
santu izan bitez Borda, Lertxundi, Martinez de Lezea, Saizarbitoria eta Irigoiernen izenak, egin bedi argitaletxeen nahia, Durangon bezala, El Corte Inglesen ere. Emaiguzu gaur urte osorako ogia. Barkatu irakurleen zorrak, geuk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, eta ez gu langabeziara eraman, baina, atera gaitzazu galtze guztiak, orain eta gure heriotzaren orduan (baina batez ere orain), amen.

Gure Aita,  
Durangoko Liburu eta Disko Azoka-n zarena,  
santu izan bitez BerriTxarrak, Gati-bu, Mikel Laboa eta Benito Ler-txundiren arimak, egin bedi diskoeetxeen nahia, Durangon bezala Elkarren ere. Emaiguzu gaur urte osorako ogia, eta posible bada, ardoa eta cohiba on bat. Barkatu entzuleen zorrak (diskorik grabatzen ez badute, orduan, betorkie infernuia), geuk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero (Jean Laffite eta Ixtebe Pellet ez badira, behinik behin). Eta ez gu langabeziara eraman, baina, atera gaitzazu galtze guztiak, orain eta gure heriotzaren orduan (baina batez ere orain), amen.

Gure Aita, Durangoko...



arte kalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

## ANTZERKIA &gt; EMANALDIA

**D**urangoko San Agustin kulturguneko oholtzatik eskainiko du Tantaka Teatroa taldeak *'Ipar haizearen kontra'* azkeneko ekoizpena.

Abenduaren 10ean eta 11n, euskarazko eta gaztelerazko bertsioan eskainiko dituzte, hurrenez hurren, emanaldiak. Daniel Glattauer idazlearen nobelan oinarrituta eta Fernando Bernues donostiarak zuzenduta prestatu dute ikuskizuna.

Euskarazko eta gaztelerazko bertsioan eskaintzeko, uztalean ekin zioten Joseba Apaolaza eta Itziar Atienza aktore protagonistek lana prestatzeari. Iraila amairan, hirugarren aktorearen aldi baterako ordezkapena egiteko batu zitzaient Felix Arkarazo durangarra.

Abenduaren 10ean euskarazko bertsioan, eta gazteleraz 11n, San Agustin kulturgunean



Asteoan beragaz izan dugun berbaldian kontatu digu Felix Arkarazok datozen asteetan Donostian eta Zornotzan eskainiko dituzten obraren emanaldietan berak jardungo duela obrako protagonistaren senarraren papera egiten.

"Garapen teknologikoek bizimodu erraztu egingo zigitela pentsatu izan dugu beti", hasi zaigu Arkarazo antzerlanaren inguruan berbetan, "baina sakonean horietako batek ere ez gaitu zoriontsuago egin". Gogoeta hori dago, Arkarazok azaldu digunez, *'Ipar haizearen kontra'* antzezlanaren muinean: elkarrekin komunikatzeko bitar-

## Apaolaza, Atienza eta Arkarazo 'Ipar haizearen kontra' San Agustinen

Durangoko San Agustinen eskainiko dute Joseba Apaolaza, Itziar Atienza eta Felix Arkarazo antzezle dituen lana

tekoak areagotu arren, "harreman afektiboak ondo bideratzeko gure ezintasuna bere gordinean erakusten du obrak", Felix Arkarazoren berbetan. Hanka-sartze baten ondorioz elkar ezagutzen duten gizon-emakumeak dira protagonistak.

"Harreman afektiboak ondo bideratzeko gure ezintasuna bere gordinean erakusten du"

Fernando Bernues zuzendarriari buruzko oso erreferentzia onak zeukala dio Arkarazok. "Benetan gozamen hutsa izan da Fernandogaz lan egitea", dio: "Tratuari eta laguntzari dagokionez, eta dakiena oso ondo transmititzen dakielako". ■ I.E.

## "Jendea arreta bizi dagoela igartzen da eszenatokitik"

Tantaka Teatroren lanagaz bueltatuko da Felix Arkarazo antzerkira



*Antzerkigintzan barik bestelako alorrean jardun duzu azken urteetan.*  
Bai, Goenkale eta bikoizketa lanak burutzen jardun izan dut gehienbat azkeneko urteotan. Antzerkigintzatik aparte sei-zazpi urte neramatzan.

*Zelan hurreratu zinen aurreko aldi harthan lehenengoz antzerkigintzara?*  
Oraintxe deitu didaten moduan, Victor Bevh obraren euskarazko bertsiorako aktore baten ordezkapena egiteko deitu ninduten orduan. *'Ipar haizearen kontra'* honetan, egun zehatz batzuetan aktore bat ordezkatzen deitu zidaten. Nobedadeada, baina, ordezkatzen dudan aktorea gaixotu egin dela, eta hemendik aurrera neuk

egingo ditudala emanaldiak. Durangon, Donostian eta Zornotzan, euskarazko eta gaztelerazko bertsioetan jardungo dut.

*Zelako da 'Ipar haizearen kontra' honetan egiten duzun papera?*

Paper txikia da, bakarrizketa ez oso luzea baina bai oso garrantzitsua: tramari dago-kionez erabat aldatzen dira gauzak nire interbentzioaren ondoren. Emakume protagonistaren senarraren papera egiten dut. Interbentzio laburra baina pisutsua: ez da testu luzea, baina gozagarria bai.

*Azken urteetan antzerkira bueltatzeko gogo hori eduki duzu?*

Azken urteetan nahiko lanpetuta ibili naiz Goenkale eta bikoizketa uztartzen, baina orain urte eta erdi, hamalau urteko ibilbidearen ondoren, agur esan behar izan nion telesailari. Oraintxe Goenkaletik kanpo nagoenez, denbora aldetik libreago nago denera heltzeko. Bikoizketako lanak ere moteldu egin dira azkenaldian, eta lagun-garri jotzen ditut hau lako aukerak.

*Erakutsi duzuentan zelan hartu du publikoak obra?*

Orain arteko emanaldietan uste nuena baino jende gehiago egon da, eta nabari da harrera ona dela: jendea arreta bizi-bizi dagoela igarri egiten da eszenatokitik. Andoainen, Tolosan eta Igorren egon gara obragaz. Liburutik antzerkirako egokitzapena liburuaren idazleak berak egindakoa da, eta oso bisuala da: ikusteko gozamen hutsa da. Iluminazio eta eszenografiari dagokionez lan handia egin dute. Gaia sakona, pisutsua izan arren, umore zertzelada batzuk ere badaude.

*Zerezagarri erakargarriaz pimarratuko zenuke obra honetan?*

Izenburu bereko Daniel Glattauer idazlearen liburu batean dago obra oinarritua: Europan nahiko arrakastatsua izan den liburu batean. Bai liburuan bai antzezlanean agertzen dena errealtitatea unibertsala da. Oso arazo unibertsalaz dihardu obrak: harreman afektiboak ondo bideratzeko gizakion ezintasunaz. ■ I.E.

  
**GAER DESINFEKZIOAK**  
Mota guztiak intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:  
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...  
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug:658 75 72 79

**URTXINTXA**  
**HEZIKETA JOSTAI LUAK-ESKULANAK**  
Aukera ezazu hemen zure erregalua  
Andra Mari kalea, 9 DURANGO  
Tel.: 94 681 50 17

**ALBERDI**  
HARATEGIA HARATEGIA  
DURANGO

**Bertako okela**  
Aurretiaz prestatutako janariak  
Askatasun etorbidea, 1  
Tf: 94 681 76 58  
48200 DURANGO

El fundador del  
DECIMOQUINTO CONCURSO MUNDIAL  
DE MORCILLAS BIZKAINAS  
declara **GANADOR** del mismo, con el título de  
BEZKAIKO ODOLOSTETEN MUNDUKO  
HAMABOSTGARREN TXAPELKETAK  
equi-mahaisak, irabazle eta  
ODOLOSTETAN GAILEN - 2009  
Eminencia en la elaboración de Morcillas  
**Alberdi Harategia** Izendatua da  
Makalaketa - El Sombrero  
D.O.V.A.  
Makalaketa - El Sombrero  
Fern. Javier Zarzaga TXAPELKETA  
Dado en el Celi LA GRANJA, de Bilbao,  
sede de la Academia del Cerdo - TXAKIRIDUNA  
El once del once a los once. Hamalakoa, hamalakoa, hamalakoa

**ALBERDI**  
prekozinatuak



Bisitariei, parte-hartzaileei, babesleei, elkarlaneko bidelagunei,  
bazkideei, langileei, laguntzaileei, komunikabideei...

# ESKERRIK ASKO!



@anbotokirola

# KIROLAK >

## Olazar pilota txapelketako finalak datozen aste bietan erabakiko dira

Elezkano anaiak finalurrekoetara heldu dira; lau t'erdikoan Danel eta binakakoan Ander



Lau t'erdian Danel Elezkanok garaipen argia lortu zuen final-laurdenetan, Legorburu galdakoztarraren kontra (22-10). Argazki Press

Olazar pilota txapelketa azkeneko txanpan sartuta dago. Atzo hasi ziren finalurrekoetako lehiak, eta abenduaren 15eko eta 22ko jardunaldieta osatuko da finaleko kuarteldegia. Besteak beste, Elezkano anaiak eta Ibai Arratibel lako pilotariak ikusi ahalko dira Zaldibarko pilotalekuaren. Elezkanotarren gazteenak, Danelek, Cafés Baqué txapelketa irabazi berri du, eta Arratibeak beste hainbeste lortu zuen iaz gazteen mailan.

Abenduaren 15ean lau t'erdiko bigarren finalerdia jokatuko dute Elezkano II.ak eta Urret-

Hilaren 15ean, Bizkaiko Pilota Txapelketako finalak ere jokatuko dira

Binakako finalerdi bietan ez dago faborito argirik

bizkaia. Danel faborito argia da finalerako txartela lortzeko, baina Urretabizkaiak garesti saldu nahiko dio garaipena. Lehia horren aurretik, 20:45ean, Bizkaiko Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte gazte zein nagusietan. Finalerdiak zapatuan jokatuko dituzte: batean Asier Berasaluze eta Eneko Perosanz berritzarek Elezkano eta Kantxoren kontra jokatuko dute; ondoren, Beitia eta Galarza VI.a Azpiri eta Landaburu elorraren kontra lehiatuko dira.

Lau t'erdiko lehenengo finalerdia atzo jokatu zuten

Jakak eta Bilbaok (emaitzak eta kronika: [www.anboto.org](http://www.anboto.org)).

Hilaren 22an, 21:30ean, binakako finalerdi biak jokatuko dituzte. Lehenengoan Yoldi nafarrak eta Arratibel eta Aundarrak bikotea osatuko dute Albarado eta Perez arabarren kontra. Yoldi eta Arratibel dira faborito; baina ez dira argiak ere. Ondoren, Altzelaik eta Diezek Elezkano II.a eta Gorrotxategiren kontra jokatuko dute. Hauxe da, beharbada, pronostikorik zailena duen partida.

Finalak abenduaren 31n jokatuko diruntze. ■ J.Derteano.

## Igorreko lasterketa ahaztuz, Mуроitio irabazole Asteasun

Igorren gura baino apalago ibili zela iritzita, Asteasun "amorruz" lehiatu zela onartu du

Munduko Koparako puntuagaria zen Igorreko proban lortutako 18. postuagaz ez zen batere gustura geratu Egoitz Mуроitio (Hirumet): "Emaitza ez da txarra, baina ez nago pozik. Bi bider

jausi naiz, baina ez dago aitzakirik", adierazi zuen.

Beraz, martitzeneko Asteasuko proban "amorruz" ibili zela onartu du. Arerioek somatu zuten bere amorrua, lehenengo itzulian ihes egin eta bakarrik helmugaratu zelako. Orbeako Aitor Hernández bigarrenari 1.52ko aldea atera zion. 23 urtez azpikoan Hirumeteko Jonathan Lastra eta Pablo Rodriguez izan ziren lehenengoak. ■ J.D.

Asteasun denboraldiko bederatzigarren garaipena lortu du

## Danel Elezkano eta Dario Gómez onenak Cafés Baqué

Zaratamoztarrak, gazteetan, eta errioxarrak, kadeteetan, irabazi zituzten Mañariko finalak

Mañariko pilotalekuaren jokatutako 26. Cafés Baqué Txapelketako finaletan Danel Elezkanok eta Dario Gómezek jantzi zituzten gazte eta kadete mailetako txapelak.

Danel Elezkanok Olazar pilota txapelketako finalera sailkatzean faborito argia zer-gatik den erakutsi zuen gazte mailako finalean. Ikaragarrizko jokoak erakutsiz, 22-4 xehatu zuen Astigarragako Santzez.

Ahalegindu zen Santzez, baina alde batetik bestera korrika ibiltzea egokitu zitzaison. Elezkano II.a kadeteetan zein gazteetan txapela jantzi duen pilotari bakarretakoa da. Aurretik Zabala, Urberuaga eta Arrietak bakarrik lortu dute hori.

Kadeteetan Gómezek 18-13 menderatu zuen Arrankudiagako Ibarrondo. Partida lehiatua jokatu ondoren, eto errioxarra nagusitu zen. ■ J.D.

Frontenis torneoak egingo dute Mallabian

Aurten bosgarren biderra egingo du Mallabiko frontenis txapelketak. Antolataileek dagoeneko zabaldu dute izen-ematea, eta urtarilaren 15era arte egongo da zabalik.

Aurten liga sistema erabiliko dute, eta zortzi edo hamarreko taldeak eratuko dituzte, parte-hartzaleen mailaren arabera talde batean edo bestean banatuko dituztenak. Beraz, parte-hartzale bakoitzak zortzi edo hamar partida artean jokatuko ditu, gutxienez. Txapelketa otsailaren eta maiatzaren artean jokatuko dute.

Izena emateko telefono bat jakinarazi dute antolatailek: 669 028 718. ■ J.D.

## Urrea irabazi du Unai Elorriagak Munduko Kopan

Spik Cespa-Euskadi taldeko Unai Elorriagak urrezko domina irabazi du puntuazioan, Calin (Kolonbia) jokatutako Munduko Kopako bigarren proban. Horrela, une honetan Kopako ranking-eko liderra da etxearriarra.

Elorriagak 30 kilometroko puntuazio proban parte hartu eta bera izan zen azkarrena. Ondorioz, rankig-erako oso garrantzitsuak diren 46 puntu batu zituen bizkaitarrak.

Azpimarratu beharra dago Espainiako selekzioagaz Tania Calvok (Cespa-Euskadiko txirrindularia) 200 metroko Espainiako errekor berria eza-ri duela. Gero eta maila hobean ari dela erakutsi zuen Gasteizko ziklistak. ■ J.D.

## Pisu neurako asto probak Mallabian

Gaur eta bihar pisu neurako asto proben bosgarren saria jokatuko dute Mallabian. gaur, 21:00etatik aurrera, Maumeko Gazta, Satxiba eta Urkiaga ibiliko dira lehian; bihar, ordu beraean, Maiora, Lejarreta eta Alegiaren arteko dema ikus-teko aukera egongo da. Atzo Argoitia, Zubibarri eta Mañukobentak jardun zuten.

Irabazleak 390 euro, manta, txapela eta garaikurra jaso-ko diru; bigarrenak 330 euro eta garaikurra, eta hirugarrenak 270 euro eta garaikurra. Lehenengo hamar sailkatuentzat egongo da saria. ■ J.D.

# Tabiratik kanpora, lau ordu 10 jokalarigaz jokatzen

Kulturalak kanpoan jokatutako zortzi partidetatik bost hamarregaz amaitu ditu; guztira, 226 minutuan ibili dira jokalari bat gutxiagogaz



Hilaren 16an berriro etxetik kanpora jokatuko dute, Portugaleteren kontra. Kepa Aginako

**H**amaika lagunen lana hamarren artean egitea hancicapa da edozein ofiziotan, eta futbolean ere bai. Alde horretatik, Durangoko Kulturala erronkaz erronka ibili da orain arte. Jokatu diren 16 jardunaldietatik seitan hamarregaz amaitu dituzte neurketak, eta egoera hori gehienetan etxetik kanpora bizi izan dute.

Tabiratik urrun jokatutako zortzi partidetatik bostetan geratu dira jokalari bat gutxiagogaz. Kopuru hori minuto bilakatuta, guztira 226 minutu

eman dituzte hamarregaz; ordulauden eskas falta lau ordurako. Bigarren jardunaldian Laudiora egindako bisitan 67. minutuan egotzi zioten jokalari bat; seigarrean, Balmasedan, 37. minutuan; zortzigarrenean, Barakaldo, 18.ean geratu ziren hamarregaz; hamargarren jardunaldian, Gasteizen, 44.ean; azkenik, joan zen asteburuan,

ra berean aurkitu zirelako. Hamarregaz amaitutako neurketetatik hiru galdu (Laudio, Barakaldo eta Zalla), bi berdindu (Vitoria eta Zamudio) eta bat irabazi (Balmaseda) egin dute.

**Sailkapenean zortzigarren**  
Mikel Agirregomezkorta entrenatzaileak jokalariekin berba egin duela dio, eta arazoak kontzentrazioan dabilta. Bitartean, aurkakotasun horiek denekin ere, Kulturala zortzigarren dago eta oraindik ez du aurrekoen lorratza galdu. ■ J.D.

lehiak jokatuko dituzte. Elorriok Zarautz azken hirugarrena hartuko du etxeen. Irabaziz gero, harrapatu egingo lituzkete. Sasikoak Egintza taldea bisitatuko du; Billabonako taldea azken bosgarren dago, Sasikoaren gandik lau puntu.

Bitartean, Mallabia Hierros Servando bosgarren dago. Joan zen astean 5-7 irabazi zuten derbia Sasikoaren kontra. ■ J.D.

## Sasikoa eta Elorrioko, estu dabiltzanen arteko lehiatan

Euren antzera behean dauden arerioen kontra jokatuko dute


Elorrioko Buskantza eta Sasikoa areto futboleko hirugarren mailako azkeneko postu bietan daude, liga hasi zenetik 11 jardunaldi joan direnean. Asteburuhonetan eurak legez puntu beharean daudenen kontrako



**Hurrengo eraikuntza**

**ZARATE ELEXPE ERAGILEAK**  
Bixente Kapanaga 19, behea  
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

**Elorrión ere aukera onak**



Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

**Gotzon Gomez**  
•errugbi entrenatzailea



## Kirola eta komunikazioa

Irakaskuntzan gabiltzanok urte batzuk daramatzagu gaitasunen munduan murgilduta, ditugun ikasleek konpetenteak izan beharko dute hainbat arlotan; batez ere, euren egunerokotasunean erabiltzeko.

Gaitasunak hainbat izanik, nik hizkuntza komunikaziorako gaitasunaren garrantzia azpimarratuko nuke, batez ere, kirol munduan. Funtsezko dugu hasierako urteetan hizkuntza ondo lantzea. Gazteenek edozein kiroletan lehenengo urratsak ematen dituztenean, ezinbesteko dugu monitore edo entrenatzaile garen heinean gauzak ondo azaltzea, argitasunez, baina, batez ere, lasaitasunez, oinarrizko konzeptuak barneratu ditzaten. Entrenatzaile garenok, arlo hau landu eta zaindu beharko genuke. Errugbia bezalako kirolean aritzen garenok hizkuntzaren garrantzia ondo barneratuta izan beharko genuke.

Baina aurreko guztia garrantzitsua izanik, estrategia arloan kokatuko nuke hizkuntzaren komunikaziorako baliorik garrantzitsuena. Hau da, jokoaren aurrean hainbat dira talde batek dituen jokaldiak, eta ahozko komunikazioak garrantzia handia hartzen du. Gaur egun euskara arloan dugun erronkarik handienetako bat kirol munduan dugu. Hizkuntza komunikazioa euskaraz bermatzen dugun heinean, euskaren balioa eta erabilera bera bermatuko dugu, eta lan handia dugu oraindik aurretik. Askotan, Euskal Herritik kanpoko taldeen kontra aritu garenean, hizkuntza propio bat izateak, euskarak, balio izan digu lasai asko hitz egiteko zelai barruan jakinean arerioek ez zutela tutik ere ulertuko. Bain erabilera eguneroko kirol jarduerara zabaldu behar litzateke, eta horretan oraindik ere lan handia dugu egiteko.

## Tabirako Baqué sasoian, zulotik irten eta gero

Garaipenekin bosgarren kokatu da; Ardoi bigarren sailkatua bisitatuko du 17an

Tabirako Baqué gizonen talde nagusia bolada onean dabil. Azken hiru neurketak segidan irabazi ditu, eta azken sei partidetik bostetan lortu du garai-pena; Baskoniaren kontra puntu bigatik galdu egin zuen. Ondorioz, sailkapeneko zulotik irten eta bosgarren kokatu da. Lehenengo hiru jardunaldietan galdu izanaren zama apurka-apurka arintzen dabil Durango-sa saskibaloitza.

Emakumeen talde nagusiak goi mailan jarraitzen du, eta bigarren daude sailkapenean. Orain arte zazpi neurketa irabazi eta bi galdu ditu.

Erregional berezian indartsu dabilta Tabirakoko gizonak ere; Leioaren atzetik bigarrenak dira. Anbotopekok azken hiru partidak galdu egin ditu. Punturik gehien sartu duen taldea da, baina baita puntu gehien jaso dituena ere. ■ J.D.

- Oinetako patologiak
- Neurrira egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

**Ainara Urreta Jainaga PODOLOGOA** 188. Elkargokidea

# Elorrio-lurretako emakumeen arteko derbia, lau urte geroago

Elorriok iaz lortu zuen igotzea, eta zapatuan elkarren kontra jokatuko dute Eleizalden



Elorrio futbol taldeak iazko blokeari eusten dio. Juanra de la Cruz

**D**erbiak jokatzea beti da gustagarria, eta gogozitxaroten dira; are gehiago maila guztiak kontuan hartuta eskualde bereko talde bi bakarririk daudenean, eta lau urtean maila diferenteetan egon direnean; lurretako lehen erregionalean eta Elorrio bigarrenean. Bainha iaz Elorriok igoera lortu zuen, eta zapatuan Elorriok eta lurretakok elkarren kontra jokatuko dute berriro.

Aulkian elkar ondo ezagutzen duten entrenatzale bi daude, sasoi batean lurretakon jokatu zutelako biek: Endika Romero lurretakoren partetik eta Mikel Arrube Elorriori dagokionez.

Talde biak ligako beheko postuetan dabilta, baina bien jarduna ezin daiteke aztertu ikuspuntu eta oinarri beretik. Lurretakok esperientzia du maila honetan, eta denboraldi hasieran "lehenengo seiren artean geratzeko aukera" zeukatela pentsatzen zuten, Endika Romerok

